



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko azaroaren 8a

59 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzkoa (3. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Lankidetzaren Hitzarmen proiektua, oliba olioaren ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko kontrol sistemei buruzkoa (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Gobernuak beste Lankidetzaren Hitzarmen bat izenpetu dezan Euskal Autonomia Erkidegoarekin. Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Nafarroako Gobernuak “Cárnicas del Sadar, S.A.L.”i eman dizkion laguntza eta maileguei buruzko galdera, Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—Zerga-arauen gaineko hiru Foru Lege aurreproiektuari buruzko galdera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

—Gizarte Ongizate Departamentuak Agedna dela eta hartuko dituen neurriei buruzko galdera, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak egina (12. or.).

—Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruzko galdera, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak egina (12. or.).

—Tafallatik igarotzen den Nafarroako autopistari buruzko galdera, Martin Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).

—Nafarroako Gobernukideen opor sariei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—«Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeko bozeramalea aldatzea (16. or.).

—Nafarroako Parlamentuko hainbat batzorderen osaketa (16. or.).

—Deialdia, D mailako funtzionarien izangaien zerrenda osatzeko proba murriztueterako, haien aldi baterako prestakuntza errazteko, Transkriptore gisa garatzearen, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera. Gainditu dutenen zerrenda (18. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—1996ko urrian egindako bilerak (19. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko urrian sartu diren agirien zerrenda (21. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko urriaren 21ean hartutako Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea. Epe hori proiektua eztabaidatuko duen Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12etan bukatuko da. Berauek Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu behar dira.

Hirugarrena.- Aipatu proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzkoa

1996ko ekitaldian agerian jarri da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak behar baino aurrekontu kontsignazio txikiagoa duela Hirugarren Adinaren arloko “Famili eta partikularrendako laguntzak” izeneko kontusailean, 32220-0 lerroan, guztira 62.368.000 pezetaren beharra.

Horren ondorioz, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-gehigarria eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. 62.368.000 pezetako kreditu-gehigarria eman da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren beharrei erantzuteko. Gehigarri hori aplikatuko zaio 1996ko Gastuen Aurrekontuan “Famili eta partikularrendako laguntzak” izena duen 93300-4809-3132 kontusailari, 22002 proiektuari, 32220-0 lerroari.

2. artikulua. Kreditu-gehigarri honen finantzaketa egin da gastuen aurrekontuan “Hirugarren adinekoen termalismo eta turismo programako bidaietarako dirulaguntza” izena duen 93300-4810-3132 kontusailean, 22002 proiektuan, 32240-5 lerroan eskuragai dagoen kredituaren kargura, diru kopuru bera hartuz.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

D Saila:
HITZARMENAK

**Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako
Gobernuaren arteko Lankidetzaren Hitzarmen proiektua, oliba olioaren
ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko kontrol sistemei buruzkoa**

Nafarroako Gobernuak hurrengoari buruzko agiriak bidali ditu: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Lankidetzaren Hitzarmen proiektua, oliba olioaren ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko kontrol sistemei buruzkoa. Horiek Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 162 artikuluan ezarritakoa bezela.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

**Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
Ministerioaren eta Nafarroako
Gobernuaren arteko Lankidetzaren
Hitzarmen proiektua, oliba olioaren
ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko
kontrol sistemei buruzkoa**

BILDURIK

Alde batetik, Loyola de Palacio del Valle-Lersundi andrea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministroa, maiatzaren 5eko 762/1996 Errege Dekretuaren arabera, Nazioko Gobernuaren ordezkaturik, Ministroen Kontseiluak _____an harturiko erabakiari jarraikiz eta Administrazio Publikoetako Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6.1 artikuluekin bat.

Bestaldetik, Ignacio Javier Martínez Alfaro jauna, Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, haren izenean eta hura ordezkaturik, Gobernuak _____n harturiko Erabakiari jarraikiz eta Nafarroako Parlamentuak ...n baimendurik.

Elkarri aitortzen diote hitzarmen hau izenpeztzeko legeko ahalmena, eta horretarako honako hau

ADIERAZI DUTE:

Lehen. Koipezko gaien sektorean merkatuen Antolamendu Amankomuna ezartzen duen Kontseiluko 136/66 (EEE) Erregelamenduko 5. artikulua oliba olioaren ekoizteko laguntzarako araubidea ezarri du.

Bigarren. Oliba olioaren ekoizteko eta ekoizlearen erakundearen laguntzaren kontzesioari buruzko arau orokorrak hartzen dituen Kontseiluko 2261/84 (EEE) Erregelamenduko 14. artikulua agindu dio kide den Estatu ekoizle bakoitzari kontrol araubide bat ezartzeko, laguntzaren xede izan den ekoizpenak hura jasotzeko onurarako eskubidea daukala bermatzearen.

Hirugarren. Oliba olioko sektorean neurri bereziak aurreikusten dituen Kontseiluko 2262/84 (EEE) Erregelamenduko 1. artikulua agindu zien kide diren Estatu ekoizleei, beren antolamendu juridikoaren arabera, erakunde berezi bat sordezatela, zenbait jardueraz eta oliba olioko sektoreko Europako Batasuneko laguntzen ikuskapenaz arduratuko dena, esportazioengatik itzuli beharrezkoa ez. Batzordeko 27/85 (EEE) Erregelamenduko 2262/84 (EEE) Erregelamendua aplikatzeko moduak ezarri zituen.

Laugarren. Abenduaren 11ko 28/1987 Legearen bidez, lehen aipaturiko artikuluan ezarritakoa betetzeko asmoz, Oliba Oliorako Agentzia (OOA, hemendik aurrera) sortzea onetsi zen. Hori erakunde autonomoa izanen zen, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari atxikirik, administrazio izaerakoa, bere nortasun juridikoa eta ondarea edukiko dituen, baita aurrekontu independentea ere, 2262/82 (EEE) eta 27/1985 (EEE) Erregelamenduetan ezarritako xede eta eginkizunak izanen dituelarik.

Bosgarren. Autonomi Erkidegoek eskumena dute Europako Batasunak oliba oliorekin ekoizpe-nerako ezarritako laguntzaren kudeaketan.

Seigarrena. Europako Batasuneko arautegiak oliba olioaren ekoizteko laguntza araubidean ezarriko kontrolen aplikaziori buruzko esperentziak beharrezkoa egiten du alde batetik kudeatu, ordaindu eta kontrolatzeko organoei eta bestetik OOAr esleituriko eginkizunen arteko koordinazioa, aplikatzeko den arautegiaren bidez,

Aurrekoarekin bat, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzen duten hurrengo baldintza hauen menpe.

BALDINTZAK

LEHENA. Xedea.- Hitzarmen honek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Erakunde Autonomoa den Oliba Oliborako Agentziaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzarako funtsezko jarraibideak ezartzen ditu, Europako Batasunak ezarriko oliba olioaren ekoizpenerako laguntza araubidea zuzentasunez aplikatzen dela bermatzeko kontrol araubidea aplikatzeko.

BIGARRENA. Olio ekoizle elkartuen gaineko agiri bidezko kontrola.- Olio oliba ekoizteko laguntza emateko, Nafarroako Foru Komunitateak, laginen bidez, ziurtatuko du dazagutzan Ekoizle Erakundeek egiaztapen hauek egin dituztela:

a) Haien kide bakoitzak aurkezturiko espediente bat datorrela 2261/84 (EEE) Erregelamenduko 3. artikuluan aipatzen diren betebeharrekin, eta bereiziki baimenduriko olio errota batean olibak ehotzeko probari dagokionarekin.

b) Uztaldi bakoitzean batez beste gutienez ere 500 kilo oliba olio ekoizten dituzten ekoizleei dagokienez, beren eskabidean agertzen diren oliba ehoen eta olio eskuratuaren kantidadeen eta ehotzeko probetan agertzen direnen arteko egokitasuna.

c) Olio ekoizle elkartu guztien kasuan, landaketa aitortenean agertzen den olibondo kopuruaren eta laguntza eskabidean agertzen denaren arteko baliokidetasuna.

Foru Komunitateak, lehen aipaturiko egokitasuna gertatzen ez denean, behar diren agiriak eskatuko dizkie Ekoizle Erakundeei, 2261/84 (EEE) Erregelamenduko 8. artikuluaarekin bat.

HIRUGARRENA. Elkarturik ez dauden olio ekoizleen gaineko agiri bidezko kontrola.- Elkarturik ez dauden olio ekoizleen kasuan, Nafarroako Foru Komunitateak zuzenean egingen ditu Bigarren Baldintzan aipatzen diren egiaztapenak.

LAUGARRENA. Ekoizle Erakundeen eta haien Batasunen jardueren gaineko kontrola.- Nafarroako Foru Komunitateak ziurtatu egingen du

Batasunek zuzenean eta gutienez ere Ekoizle Erakundeek eginiko kontrolen % 5en gainean, Hitzarmen honetako Bigarren Baldintzako a), b) eta c) ataletan aipatzen diren kontrolak egin dituztela.

BOSGARRENA. Foru Komunitateak ordaindu baino lehen egin beharreko kontrolak.- Uztaldi bakoitzean eta oliba olioaren ekoizpenerako laguntzetarako eskabideak onetsi baino lehen, Foru Komunitateak hau kontrolatuko du:

a) Berak baimenduriko olio errotetako ekoizpen agiriaren ondoriozko olio kantidadeen eta laguntza eskabideekin batera igortzen diren ziurtagirietan esaten denaren arteko egokitasuna.

b) Olio ekoizle bakoitzak aitorturiko oliba eta olioaren ekoizpenaren atarramenduen eta bere landaketa aitortenean dauden argibideen arteko egokitasuna.

c) Eskatzaileak aurkezturiko landaketa aitortenean zehaztasuna, uztaldi batean, eskabidean aipaturiko kantidadea modu esanguratsu batean aurreko uztaldian eskaturiko kantidadea baino handiagoa bada, ekoizpena kasuan kasuko uztaldia-ekin konparatzeko modukoa bada.

SEIGARRENA. Ezagutzeko eta baimentzeko baldintzen gaineko kontrolak.- Ekoizle Erakundeek eta haien Batasunek ezagutzeko eskaturiko baldintzak eta harturiko konpromezuak betetzen dituztela egiaztatuko, Foru Komunitateak behar diren kontrolak egingen ditu.

Halaber, olio erroten oliba olioaren ekoizpenerako laguntza araubidean jarduteko baimenagatik ezarri zaizkien baldintzak eta hartu dituzten konpromezuak betetzen dituztela ziurtatzeko behar dituen egiaztapenak egingen ditu.

ZAZPIGARRENA. Olibondo landaketaren aitorten berriak.- Ekoizle Erakunde bateko kideak diren olio ekoizleek olibondo landaketan aitorten berrien aurkezpenen kasuetan, Foru Komunitateak egiaztatuko du hark:

a) Aitorten berrian sarturiko lurzatiek edukitzea babesten duten titulu edo katastroko egiaztagiria ziurtatu dituztela edo, halakorik ezean, luzatu duela OOAK 1992ko ekainaren 1ean eman zuen Ebazpenean aurreikusten den ziurtagiria.

b) Halaber, aitorten berrietan sarturiko lurzatieko olibondo azalera ez dela beste landaketa aitorten batean agertzen eta behar bezala justifikaturik alta hartzen dutela (beste Aitorten batean baja hartzean, olibadia dela frogatzen duten agiriak daudela, etab.).

c) Azkenik, kasuan kasuko uztaldiko abendua-
ren 31 baino lehen, olio ekoizle elkartuek aurreko
azaroaren 30a baino lehen aurkezturiko landaketa
aitorpenak igorri dituela eta, haiekin batean, behar
den euskarri informatiboa, non, nahitaez, lurzati
bakoitzeko argibideak adierazi beharko baitira,
katastroko identifikazioa barne.

Elkarturik ez dauden olio ekoizleen kasuan,
Foru Komunitateak eginen ditu zuzenean a) eta b)
ataletan aipatzen diren egiaztapenak.

**ZORTZIGARRENA. Oliba Olorako Agen-
tziak egin beharreko kontrolak.**- Europako Bata-
sunak oliba olioko sektorean ezarri duen araute-
gia ongi betetzen dela bermatzeko, OOAk,
2262/84 (EEE) Erregelamenduko 1. artikuluko 4.
atalean aipatzen den Jarduera Egitarauari jarrai-
ki, kontrol hauek eginen ditu:

a) Foru Komunitateko Ekoizle Erakundeen eta
haien Batasunen jarduerak 2261/84 (EEE) Erre-
galamenduari darraizkiola egiaztatzea.

b) Emaniko laguntzei dagokienez, landaketa
aitorpenetan eta laguntza eskabideetan agertzen
diren argibideak benetakoak direla egiaztatzea,
bertako eta administrazio kontrolak eginez, Foru
Komunitateko olio ekoizleen ehuneko esangura-
tsu baten gainean.

c) Baimenduriko olio errotak kontrolatzea.
OOAk bertatik kontrolatuko du Foru Komunitateak
baimenduriko olio errotetako jarduera eta haien
izakinen ikuskapena uztaldi bakoitzean eta, bere-
ziki, ehotzeko garaian.

d) 2261/84 (EEE) Erregelamenduko 18. artiku-
luan aipatzen diren atarramenduak ezartzeko
behar diren argibideak nazio guztian bildu, egiaz-
tatu eta prestatzea.

e) Europako Batasuneko eta Espaniako erre-
gelamenduetan aurreikusiriko beste guztiak.

**BEDERATZIGARRENA. Oliba Olorako
Agentziaren argibideak.**- OOAk eskura dituen
eta oliba olio ekoizpenerako laguntza araubidean
ezarritako kontrolak burutzeko behar diren argibi-
deak jakinaraziko dizkio Foru Komunitateari. Bere-
ziki, OOAk argibide hauek luzatuko dizkio Foru
Komunitateari.

a) Foru Komunitatean eta beste Autonomi
Erkidegoren batetan edo batzuetan olibondoko
landaketa aitortpena aurkeztu duten olio ekoizleei
buruzkoak.

b) Foru Komunitatean olibondoko landaketa
aitortpena aurkeztu duten eta, hala igartzen bada,
Foru Komunitatean berean aurkezturiko beste lan-
daketa aitortpen batetan edo batzuetan ere ager-

tzen diren lurzatiak sartu dituzten olio ekoizleei
buruzkoak, baldin eta aitorturiko azalaren batura
katastroetako argibideetako bano handiagoa
bada.

c) Foru Komunitatean edo beste Autonomi
Erkidego batetan edo batzuetan oliba olioaren
ekoizpeneran laguntza eskabidea aurkeztu duten
erkidego honetako olio ekoizleei buruzkoak,
Komunitate bakoitzean zenbat olio ekoiztu den
adierazita, aurreko uztaldietan laguntza aitortu
bazitzaien.

d) Foru Komunitateko olio errotetako olio
ekoizpenaren argibideei buruzkoak, haietako iza-
kinen ikuspen erroldetan eginiko oharrekin bat.

e) Hilean behin, OOAk Foru Komunitatean
egin beharreko kontrolen aurreikuspenari buruz-
koak, haietara Foru Komunitateko funtzionarioak
joan ahal daitezen.

f) Hiru hilabete behin, OOAk Foru Komunita-
teko olio ekoizleen, olio erroten, ekoizle erakunde-
en eta haien batasunen gainean eginiko kontrole-
tako emaitzei buruzkoak.

**HAMARGARRENA. Foru Komunitatearen
argibideak.**- Bere aldetik, Foru Komunitateak
eskura dituen eta oliba olioaren ekoizpenerako
laguntza araubidean ezarritako kontrolak burutze-
ko behar diren argibideak jakinaraziko dizkio
OOAri. Bereziki, Foru Komunitateak argibide
hauek luzatuko dizkio OOAri:

a) Hitzarmen honetako Bigarrenetik Zazpiga-
rren bitarteko baldintzetan ezarritako kontrolen
ondorioz gertaturiko gorabeherei buruz.

b) Erkidego bakoitzean, 2261/84 (EEE) Erre-
gelamenduko 18. artikuluan aipatzen diren atarra-
menduek ezartzeko behar diren argibideei buruz.

c) Foru Komunitateak olio uztaldirako egin
beharreko kontrolen egitarauari buruz, kasuan
kasuko uztaldiko azaroaren 1a baino lehen igorri
behar delarik.

d) Hiru hilabete behin, Foru Komunitateak
herrialde horretan kokaturik dauden olio ekoizle-
en, olio erroten, ekoizle erakundeen eta haien
batasunen gainean eginiko kontroletako emaitzei
buruz.

**HAMAİKAGARRENA. Foru Komunitateak
Oliba Olorako Agentziari igorri behar dizkion
argiriak.**- Hamargarren Baldintzan ezarritako argi-
bideak igorri beharra deustan galarazi gabe, Foru
Komunitateak hau igorri dio OOAri:

a) Uztaldi bakoitzean, batez beste 500 kilo olio
baino gutiago ekoizten dituzten olio ekoizleen

zerrenda. Zerrenda hori, ezarri eta hamabost egun naturaleko epearen barruan, 2261/84 (EEE) Erregelamenduko 2. artikuluan ezarritako moduan igorriko da.

b) Ekoizpenerako laguntzaren edo haren aurrerapenaren eskabideen zerrenda egiaztatuak, I. Eraskineko ereduaren arabera, Foru Komunitatean aurkeztuak eta ordainduak izateko bideratuak izan badira, II. Eraskinean agertzen diren ezaugarriak dituzten euskarri magnetikoetan. Ordaintzeko bideratu eta hamabost egun naturaleko epearen barrenean igorriko dira.

c) Uztaldi bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen, olio ekoizleek aurreko azaroaren 30a baino lehen aurkezturiko landaketa aitortpen berrien alea, Espainiako Olio Erroldara igorri beharrekoa.

HAMABIGARRENA. Oliba Oliborako Agentziaren proposamenen ebazpena.- Kontrolatuko emaitzak ikusirik, OOAK bere Ebazpenak igorriko ditu, Foru Komunitateak haietaz ebatz dezan eta legeetan aurreikusirik jarroketa neurriak har ditzan. Horretarako, OOAK behar diren agiriak igorriko dizkio Foru Komunitateari.

HAMAHIRUGARRENA. Foru Komunitateko organoak.- Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Zuzendaritza Nagusia izendatzen du OOArekiko harremanen unitate arduradun.

HAMALAU GARRENA. Jurisdikzioa.- Hitzarmen hauek ulertu eta betearazterakoan sor litezkeen liskarrak Administrazioarekiko Aferen Orden Jurisdikzionalaren ardura eta aginpidepean geldituko dira, 1956ko abenduaren 27ko Jurisdikzio hori arautzen duen Legearekin bat, gaurrengungo idazketan.

HAMABOS GARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta haren ondorioak.- Hitzarmen honek 1997/1998 olio uztaldia bukatu arte iraunen du, bi aldeak indarraldia iraungi baino lehen espreski ados badaude luzatuko delarik.

Hitzarmen honek izenpetzen den egunean hartuko du indarra.

HAMASEI GARRENA. Argitarapena.- Hitzarmen hau Senatuari jakinaraziko zaio eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bat datozela frogatzeko, hitzarturiko guztia behar bezala erasota gera dadin, Hitzarmen hau bi aldiz izenpetzen da, Madrilen

Nekazaritza, Arrantza eta Abeltzaintza Ministroa: Loyola de Palacio del Valle-Lersundi

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernuak beste Lankidetzaz Hitzarmen bat izenpetu dezan Euskal Autonomia Erkidegoarekin

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko hurrengo mozioaren biderapena onestea: Nafarroako Gobernuak beste Lankidetzaz Hitzarmen bat izenpetu dezan Euskal Autonomia Erkidegoarekin. Orobat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren bilkura-eguna baino lehenagokoaren eguerdiko hamabiak arte.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Parlamentaria den aldetik, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Mahaiaren aurrean, Mozio hau aurkezten du:

Espainiako Konstituzioak, Foru Hobekuntzak eta Euskadiko Estatutuak aitortzen dituzte Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko antzekotasun bereziak, bi Erkidegoen artean lankidetzaz sistemak egituratzen dituzte eta. Hori dena Erkidegoek interes amankomunak dituzten arlo horietan zentzuzko eta orekaturiko garapena bermatzearren, bereziki, hezkuntzan, kulturaren, hizkuntza politikan, ekonomian, zergetan, industri garapenean, osasunean, lurraldearen antolamenduan, azpiegituretan, ingurugiroan eta komunikabideetan.

Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Lankidetzaz Hitzarmenaren, Nafarroako Parlamentuak 1996ko ekainaren 11n egindako

bilkuran onetsi zuenaren (96-06-19ko NPAO), biderapena Espainiako Gorteetatik kentzea erabaki duenez, Biltzarrari Erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

“Nafarroako Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera, beste Lankidetzaz Hitzarmen bat izenpetzeari ekin behar dio, Nafarroaren nortasuna eta haren autonomiaren erabateko erabilera bermatuko direlarik, Organo Amankomun eta Iraunkor bat osatzearren, eskumen berekirik edukiko ez duena, non bi gobernuen parte hartuko baitute, haien eskumeneko alorretan kudeaketa hitzarmenak eta lankidetzaz hitzarmenak prestatzeko. Hitzarmen berriak zutabe hauek izanen ditu:

1.- Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean koordinazioa eta lankidetzaz posible egiten dituen elkartzeko eremu iraunkorra osatzeak baditu aurrekariak, bi Erkidegoetan, erakundeei eta politikari dagokienez. Aurrekari horiek, esku eman zioten, Talde Popularrak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak 1987ko martxoaren 12an hartu zuen erabakiari. Bertan adierazi zen komeni zela “Organo Amankomun eta Iraunkor” bat sortzea posible egiten duten legezko aukerak” aztertzea, “bi Erkidegoetako Gobernuen arteko elkargunetako balio izateko, interes amankomuneko alorretan geroko lankidetzaz hitzarmenak izenpetzeko, baldin eta horrek Organo hari bi Erkidegoetako ordezkari-tza politikokoak edo erabakigarri eta lotgarriak diren eginkizunak esleitzea ez badakar berarekin”.

2. Bi Erkidegoetako Gobernuen arteko Organo Amankomun eta Iraunkorra Konstituzioko 145. artikulua, Foru Hobekuntzako 70. artikulua eta Euskadiko Autonomia Estatutuko 22. artikulua Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzaz horizontalerako ezartzen duten eremuaren arabera egituratuko da.

Organo Amankomun eta Iraunkor horrek ez du nortasun juridiko bereziturik edukiko, ez eta esku-

men berekirik ere, haren eginkizunak interes amankomuneko arazoei buruz argibideak trukatu eta eztabaidatzea, jarduerak bilatu eta hitzartzea, irizpideak bateratzea, proiektuak eta egitarauak prestatzea eta, bi Erkidegoetako Erakundeek komenigarritzat jotzen badute, batera jardutea izanen direlarik.

3.- Bi Gobernuen eskumeneko alor guztiek osatuko dute Organo Amankomun eta Iraunkorrak jarduteko gauzazko eremua, haiek horrela erabaki bezain laster, bi aldeek askatasun osoz harturiko erabakian oinarriturik, biek beren autonomi eskumenak eta erabakitze gaitasuna osorik gordeko dituztelarik.

Organoak proiektu arau-emaile amankomunik proposatuko balu, bi Gobernuek eta bi Parlamen-tuek onetsi beharko lukete independenteki, proposamenek loturik gelditu gabe, eremu arau-emailea eta beste edozein ekimen ezarri, aldatu, kendu eta ordezteko gaitasun osoari eutsiko diotelarik.

4. Bi Erkidegoetako Gobernuek Organo Amankomun eta Iraunkorrari eskumen batzuen aldi baterako eta behin-behineko erabilera eskualdatzen ahalko diote, titulartasunari eragin gabe, alde batek hala erabakita, erabilera berehala berreskuratzen ahalko duelarik.

5. Hona homen Organo Amankomun eta Iraunkorraren egiturak izanen dituen osagaiak:

a.- Kontseilua, bi Lehendakariak, biak batean buru izanen direlarik, eta bi Gobernuetako bina

kidek osatuko dutena. Parte hartze politikoaren gehieneko maila izanen da eta, horregatik, erabakitzen diren ekintzak eztabaidatu, ebatzi, jarraitu eta kontrolatzea dagokio.

b.- Idazkaritza Iraunkorra, Kontseiluko bi kidek, biak lehendakariak izanen direlarik, eta bi Gobernuetako hiruna kidek osatzekoa. Kontseiluaren erabakiak prestatu, jarraitu eta betearaztea dagokio.

c.- Sektoreko Ponentzia Teknikoak, bi Gobernuek horretarako izendatzen dituztene kide parekideek osatzekoak.

Erkidegoek Organo Amankomun eta Iraunkorrean izanen dituzten ordezkariak haietako gobernu organoek zuzendurik arituko dira, haien jarraitibideetatik ezin bereiztuko direlarik eta ezin konpromezurik hartuko dutelarik, espreski baimendurik ez badaude.

6.- Organo Amankomun eta Iraunkorraren erabakiak aho batez eta kideak helburu eta baliabideei buruz ados daudela hartuko dira. Haren barneko eraginkortasuna Gobernuek hartu eta nahiriko konpromezuari loturik egonen da, kanpoko erakundeen gainean zuzeneko ondoriorik izanen ez dutelarik, haiek izaera hori izateko behar den itxura formalaz hornitzen ez badute”

Iruñean, 1996ko urriaren 29an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

F Saila:
GALDERAK

Nafarroako Gobernuak “Cárnicas del Sadar, S.A.L.”i eman dizkion laguntza eta maileguei buruzko galdera

PABLO LORENTE ZAPATERIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak “Cárnicas del Sadar, S.A.L.”i eman dizkion laguntza eta maileguei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pablo Lorente Zapateria Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer argibide ditu Nafarroako Gobernuak “Cárnicas El Sadar” Lan Elkarte Anonimoari, bai maileguen bidez, bai abalen bidez, emaniko dirulaguntzei buruz?

2.- Zenbat kide ditu Lan Elkarte Anonimo horrek?

3.- Zer argibide ditu Nafarroako Gobernuak “Cárnicas El Sadar” S.A.L. Foru Gobernuak eman

edo abalaturiko maileguen amortizazioan egiten ari den betetzei buruz?

4.- Nola sailkatzen dira “Cárnicas El Sadar” delakoari emaniko dirulaguntza, mailegu, abal edo eta hipotekak, NAFINCOren edo Nafarroako Gobernuaren menpe dauden bestelako erakundeen bidez emanak?

5.- Badaki Gobernuak “Cárnicas El Sadar” delakoari bestelako dirulaguntzarik eman zaion? Zein?

6.- Nafarroako Gobernuak enpresa horretan harturiko konpromezua aintzakotzat harturik eta Administrazio Kontseiluan hiru kide edukirik, zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak “Cárnicas El Sadar” delakoari buruz? Izan ere, horrek, aurtengo irailaren bukaeran, oraindik ez zituen aurkeztuak 1995 ekitaldiko kontuak.

7. Egia da Nafarroako Gobernuak “Cárnicas El Sadar” delakoan dituen hiru kideek hiru milioi berrehun mila pezetako maileguaren alde bozkatu zutela eta mailegu hori administratzaileei inolako korriturik gabe eta itzultzeko datarik gabe eman zitzaizela? Erantzuna baietz bada, zergatik bozkatu zuten haren alde?

Iruñean, 1996ko urriaren 28a

Foru Parlamentaria: Pablo Lorente Zapateria

Zerga-arauden gaineko hiru Foru Lege aurreproiekturi buruzko galdera

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Zerga-arauden gaineko hiru Foru Lege aurreproiekturi buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Miguel Nuin Moreno Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Errege-

lemanduan ezarririkoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Urriaren 28an, astelehenarekin, gobernu bilkuran, Foru Diputazioak hiru aurreproiektu onetsi zituen zerga arautegiari buruz (Balantzeen gaurko-tzeari buruz, Elkarteen gaineko Zergari buruz eta PFEZen gora-behera batzuen aldaketari buruz).

Horregatik interesagarritzat jotzen da jakitea:

– Nafarroako Gobernuak 1997ko aurrekontu-ekitaldirako zerga bilketan aurreikusten duen gutxitzea, aurreproiektu haietan aipatzen den neurri bakoitzari dagokionean.

– Foru Diputazioak hurrengo ekitaldietarako zerga bilketan aurreikusirik daukan gutxitzea.

Iruñean, 1996ko urriaren 29an

Foru Parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengoa ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Hona galdera: Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen Osasunbidean hurrengoa ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendariz Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak idatzizko erantzuna eskatzen duten galderetarako ezarririkoaren babesean, hau dio:

Insaludek iragarri du 35 ospitaletan jardunbide berri bat ezarri behar duela, HIESaren aurkako txertoa deritzona. Hori horrela, aintzakotzat hartuko dira Munduko Osasun Erakundearen gomendioak eta IHESaren pronostikoa neurtzen ahalko da, birus zamaren bidez (alegia, odol milimetro bakoitzean dagoen birus kantitatearen bidez).

Hori medikuntzak sindrome hau garaitzeko egin duen urrats garrantzitsua da eta haren aplikazioak aldatu egingen ditu gaisotasunari aurre egiteko tratamendu motak.

Horregatik galdera hauei erantzun dakien eskatzen da:

– Badago Nafarroako ospitale publikorik HIESaren birus zamaren bidezko pronostikoa neurtzeko jardunbidea ezartzeko egitarau horren barruan? Nafarroako Gobernuak harremanik izan du Insaludekin Osasunbideako ospitaleetan jardunbide hori ezartzeko aukera eskaintzeko?

– Hala ez bada, badu Nafarroako Gobernuak jardunbide hori osasun sistema publikoan ezartze-ko asmorik? Noiz?

Iruñean, 1996ko urriaren 29an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Gizarte Ongizate Departamentuak Agedna dela eta hartuko dituen neurriei buruzko galdera

EZKER ABERTZALEA PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Gizarte Ongizate Departamentuak Agedna dela eta hartuko dituen neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Adolfo Araiz Flamarique Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Bozeramaleak, Erregelamenduko 186. artikuluan ezarrikoaren babesean, honako hau luzatzen dio Gizarte Ongizate Departamentuari, idatzizko galderen gisan bideratua izan dadin:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Aferen Salak, 1996ko ekainaren 4an, epaia eman du AGEDNA merkataritza elkarteak Foru Diputazioak 1992ko maiatzaren 11n harturiko erabakiaren aurka paraturiko errekursoari buruz. Erabaki horren bidez atzera bidali zen kontzesioa.

Bere garaian, Departamentuak jakinarazi zenez, lehen instantziako epaia administrazioaren aldekoa izanen zela espero zitekeen, hura beteazterako. Horregatik, interesgarritzat jotzen da jakitea zer neurri hartuko dituen Departamentuak epaia betearazteko, "San Francisco Javier" Ospitale Psikiatrikoa kudeatzeko beste itun bat baimenduko ote den, ala zuzeneko eta jende aurreko kudeaketa berreskuratuko ote den; enpresa horrek segituko ote duen ospitalearen kudeaketaz arduratzen, beste erabaki bat hartzen deneino, eginiko esleipena legezkoa ez bada ere.

Iruñean, 1996ko urriaren 29an

Bozeramalea: Adolfo Araiz Flamarique

Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruzko galdera

INMACULADA PINILLA BAIGORRI FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inma Pinilla Baigorri Parlamentari Talde Sozialistari atxikirio Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarrikoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Ablitasko Liburutegi Publikoa itxita dago jendearendako liburuzainaren kontratua bukatu delako. Horregatik interesgarritzat jotzen da jakitea Nafarroako Gobernuak dagokion Departamentutik galdera honen erantzuna:

1.- Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak Ablitasko liburutegi zerbitzua berriro irekitzeko?

Ablitasen, 1996ko urriaren 30ean

Foru Parlamentaria: Inmaculada Pinilla Baigorri

Tafallatik igarotzen den Nafarroako autopistari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tafallatik igarotzen den Nafarroako autopistari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Palacios Kontseilari jaunak, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean berriki izaniko age-

rraldian, gure Taldeak eginiko galdera batzuei erantzuteko, adierazi zuen Gobernuak baduela asmoa lehenbailehen Tafallako hego loturan autopistako sarreran eta irteeran dauden zainetxolen (ibilgailuak kontatzeko) kenketa konpontzeko.

Horregatik, interesgarritzat jotzen da jakitea:

1. Noiz burutuko diren zainetxolak kentzeko lanak, Nafarroako autopistako hego loturan daudenak, hura Tafallan barna iragatean.

2. Noizko egin asmo zaien aurre autopistako tarteko hego lotura aldatzeko lanei.

3. Noizko espero den Nafarroako autopistako ipar loturari, Tafallan barna diraganean, konponbidea emateko baldintza teknikoak izatea, behar den proiektua eginik.

Iruñean, 1996ko urriaren 31n

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroako Gobernukideen opor sariei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernukideen opor sariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 18ko 54 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko urriaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Lehendakaritza Kontseilariak, Martín Landa Marco Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak Gobernukideen opor sariei buruz eginiko galdera dela eta, zuri erantzun hau igortzeko ohera dauka:

1.- Gobernuak asmorik duen opor sariak kentzeko (behar diren legeak aldaturik) eta, beharrezkoa bada, Gizarte Segurantzarekin izenpetu beharreko hitzarenaren bidez, Kontseilarien

kotizazioetan alta ezartzeko, gero, hala bada, beste edonork bezala langabeziagatik kobratzeko eskubidea eduki ahal izateko. Horri buruz jakinarazi behar dizut Nafarroako Gobernuak ez duela asmorik Nafarroako Parlamentura inolako Foru Lege proiekturik igortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 31 eta 42.2 artikulua indargabetzearen. Izan ere, haietan ezartzen da Gobernuko Lehendakariak bere kargua uzten duenean, tratamenturako eta ohoretarako, bere segurtasunaren babeserako eta arau bidez ezartzen den diru prestaziorako eskubidea daukala, baita kargua uzten duten Kontseilarien eskubideak arau bidez arautu beharra ere.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Lehendakari ohien eta Kontseilari ohien Estatutua arautzen duten abuztuaren 14ko 180/1984, azaroaren 18ko 266/1988 eta ekainaren 19ko 143/1995 Foru Dekretuak indargabetzeko edo aldatzeko asmorik ere ez dago.

Bestaldetik, 1981eko abenduaren 7ko Aginduak, 1981eko abenduaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenak, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek eta Autonomi Erkidegoetako Gobernu eta Parlamentuek, hauek kideen alde, izenpe dezaketen hitzarmen berezia arautzen duenak, bere 1.1 artikuluan hau xedatzen du: "Autonomi Erkidegoetako Gobernu eta Parlamentuek Hitzarmen Bereziak izenpetzen ahalko dituzte Gizarte Segurantzako kasuan kasuko Erakunde Kudeatzaileekin beren kideen alde, kargu haiek dauzkaten garaian Gobernuan edo Parlamentuan aritzeagatik Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubidean baja hartzen badute, aurretik horretan afiliaturik eta alta egotean egonez gero.

2. Hala bada, Hitzarmen Bereziak kasuan kasuan altan dagoeneko Araubideak emaniko ekintza babesle osoa hartuko du, langabezia gertakizunagatik ezik".

Ez dirudi, beraz, Foru Komunitate honendako hitzarmen berezi bat izenpetzeko saioa aurrera ateratzen ahalko dela Gobernuko eta Parlamentuko kideei beren agintaldiak bukatzean langabeziagatik kobratzeko eskubidea aitortzeko. Eskubide hori espreski ukaturik dago Autonomi Erkidego guztietako Gobernu eta Parlamentuetako kideendako izenpetu zen Hitzarmen Berezian.

2.- "Hiruko" Kabineteko zenbat Kontseilari ohiek egin dioten uko opor sariak kobratzeari, bai osorik edo hein batean, eta, hala bada, zenbat dirutan. Bigarren galdera honi buruz jakinarazi nahi dizut

aurreko Gobernuko kide guztiek, karguak uztean, hilabeteko lansariaren zenbatekoa kobratu zutela, behin bakarrik ordaindurik, 180/1984 Foru Dekretuko 3.5 artikulua azaroaren 18ko 266/1988 Dekretuak emaniko idazketan ezartzen duenaren arabera.

Karguan aritzen den urte bakoitzagatik ematen den eta 45 eguneko lansariaren baliokidea den diru prestazioari dagokionez, kontutan hartzeko gutienekoa urtebete eta gehinekola lau urte delarik eta kargua utzi eta hurrengo hilabetetik 6 lansari berdinetan ordaindu behar delarik, "Hiruko" Kabineteko Kontseilari ohi guztiek hitzez adierazi zuten behar zenean ez zutela prestazio hori kobratu nahi, gero asmo hori idatziz berretsiz joan direlarik. Hori dela eta, "Hiruko" Kontseilari ohiek ez dute dirurik hartuko kontzeptu horregatik.

Bai, Lehendakari ohiari ordainketa bat egin asmo zaio kontzeptu honengatik, Langileria Zerbitzuan ez baita agertzen, ez hitzez, ez idatziz, doakionaren adierazpenik diolarik ez duela aurreko Gobernuak kargua utzi zuenetik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan duen lanpostura itzuli zen eguneko bezperara iragan ziren egunei dagokien parte proportzionala hartu nahi ez duela.

3.- Azkenik, hona hemen hitzez hitz zure azkeneko galdera: "Zer ordainketa egin edo egin asmo zaizkien opor sariengatik aurreko "Hiruko" Gobernu kideei, UPNko Gobernuak Foru Dekretuaren bidez sarturiko aipatu aldaketaren bidez". Horri buruz jakinarazten dizut aurreko Gobernu kideei opor sariengatik emaniko ordainketak hauexek direla:

Izen-deiturak	Paga bakarra (266/1988 FD 3.5. art)
Otano Cid, Javier	559.786 pta. gordin
Tajadura Iso, Federico	513.135 pta. gordin
Alli Aranguren, Juan Cruz	513.135 pta. gordin
Del Castillo Bandrés, Javier	513.135 pta. gordin
Burillo López, Pedro	513.135 pta. gordin
Puras Gil, Fernando	513.135 pta. gordin
Ibero Elía, Luis	513.135 pta. gordin
Echarte Echarte, Javier	513.135 pta. gordin
Cabasés Hita, Iñaki	513.135 pta. gordin

Halaber, urriko nominan, doakionak besterik adierazten ez badu, Otano Cid Lehendakari ohi jaunari 101.374 pezeta gordin ordaindu asmo zazkio aurreko Gobernuan kargua utzi zuenetik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan daukan lanpostura itzuli zen eguneko bezperara iragan ziren egunei dagokien parte proportziona-

laren gisan, abuztuaren 14ko 180/1984 Foru Dekretuko 3.1 artikuluan aipatzen den diru prestazioagatik. Foru Dekretu hori Nafarroako Gobernu-ko Lehendakari ohi eta Kontseilari ohien Estatutua arautzen duten abuztuaren 18ko 266/1988 Foru Dekretuaren eta ekainaren 19ko 143/1995 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parla-mento Erregelamenduko 184. eta hurrengo artiku-luetan ezarritikoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko urriaren 25ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

«Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeko Bozeramalea aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 28an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Ikusirik «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko izkribua, Bozeramale aldatzea jakinarazten duena,

ERABAKI DA:

Lehena.- Miguel Sanz Sesma jaunaren ordeaz, Alberto Catalán Higuera jaunak hartu duenez

«Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeko Bozeramale postua, horren jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuko hainbat batzorderen osaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 28an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Ikusirik «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko izkribua, Bozeramale aldatzea jakinarazten duena, eta kontuan izanik

Batzorde batzuetako Mahaietan zeuden hutsunetak bete egin direla, ondoren argitaratzen da aldatu diren Batzordeen osaketa zehatza.”

Iruñean, 1996ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERREGELAMENDU BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria:

M^a Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)

Lehen Lehendakariordea:

M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)

Bigarren Lehendakariordea:

Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)

Lehen Idazkaria:

Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot)

Bigarren Idazkaria:

Amelia Salanueva Murguialday andera (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)

Rafael Gurra Induráin jauna (UPN)

Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)

Fco. Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)

José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)

Aladino Colín Rodríguez jauna (SPN)

Carlos Cristóbal García jauna (SPN)

Manuel López Mazuelas jauna (SPN)

Andrés Basterra Layana jauna (NDE)

M^a Reyes Cortaire Tirapu andrea (NDE)

Miguel Angel Larráyoiz Lezáun jauna (NDE)

Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)

Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

Florencio Aoz Monreal jauna (Ezker A.)

Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)

Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)

Lehendakariordea
Carlos García Adanero jauna (UPN)

Idazkaria
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea (UPN)
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

OSASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)

Lehendakariordea
Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)

Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (SPN)
Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)
Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)

**HERRILAN ETA AZPIEGITURA
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta and.(SPN)

Lehendakariordea
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)

Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Juan Ramón Jiménez Pérez jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Ignacio Ausejo Mozún jauna (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Miguel Angel Larráyoiz Lezáun jauna (NDE)
Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)
Florencio Aoiz Monreal jauna (Ezker A.)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

BATZORDE IRAUNKORRA**MAHAIA**

Lehendakaria
M^a Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)

Lehen Lehendakariordea
M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)

Bigarren Lehendakariordea
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)

Lehen Idazkaria
Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)

Bigarren Idazkaria
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Manuel López Mazuelas jauna (SPN)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Félix M^a Taberna Monzón jauna (EB-IU)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

Deialdia, D mailako funtzionarien izangaien zerrenda osatzeko proba murriztuetarako, haien aldi baterako prestakuntza errazteko, Transkriptore gisa gartzearren, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera

Gainditu dutenen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 4an eginiko bilkuran, hurrengo Erabaki hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Transkriptore gisa prestakuntza eta hobekuntza jarduerak garatzeko hautaketa probak gainditu dituzten izangaien zerrendaren berri baduela adieraztea. Horra zerrendan agertzen direnak:

– María Angeles Arizcuren Rey andrea

– José Miguel Carlos Ramírez jauna

Bigarrena.- Probak gainditu dituzten izangaien zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Iruñean, 1996ko azaroaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

I Sailsa:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1996ko urrian egindako bilerak

MAHAIA

1ean.

MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

7an, 14an, 21ean, 28an.

OSOKO BILKURA

3an:

– a) Ekonomi eta Ogasun Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Ekonomia eta Ogasun Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren eztabaida eta bozketa.

– a) Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren eztabaida eta bozketa.

– a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren eztabaida eta bozketa.

– a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentuari kreditu berezi bat emateko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamentuari kreditu berezi bat

emateko Foru Lege proiektuaren eztabaida eta bozketa.

– “Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida” Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua Mendillorriko etorkizun administratiboari buruzko erreferendum bat egitera prematzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

24an:

– Parlamentuko Bigarren Idazkaria hautatzea.

– Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– 296/1996 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea partez aldatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– “Eusko Alkartasuna-Askotariko” Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozioak premiatu egiten ditu Diputatuen Kongresua eta Gobernua armen esportazioari buruzko funtsezko datuak argitara eman ditzaten.

– “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeak aurkezturiko jabeldura, Foru Diputazioiko Lehendakariak Nafarroan azken urteotan izan diren ustelkeriazko jardunei buruz jarrera azaldu eta berauek argitzeko hartuko dituen neurrien berri eman dezan.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Bardeetako tiro barrutia-
ren iraupenari buruzkoa.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

8an eta 9an:

– Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi kar-

guen bateraezintasunei buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea..

16an:

– Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

9an:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Foru Diputazioko Lehendakariaren agerraldia, Nafarroako Aurrezki Kutxako Administrazio Kontseiluko Kontseilariak, Foru Diputaziko kideak ez direnak, izendatzeko irizpideei buruzko azalpenak eman ditzan.

29an:

– Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, "Euskal Autonomia Elkartearen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena" dela eta, emandako urratsak eta egindako adierazpenen berri eman dezan, eta baita ere Senatutik erretiratzeari buruzko berrien gainean azalpenak eman ditzan.

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

10ean:

– Lan-bilera. Bertan Kontuen Ganbarako Lehendakariak hurrengo txostenaren berri eman du: Erakunde horrek egindako irabazi asmorik gabeko erakundeendako transferentziei buruzko behin betiko fiskalizazio txostena (1995).

15ean:

– Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

17an:

– Toki Administrazioako Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

OSASUN BATZORDEA

18an:

– Lehendakariordearen hautaketa.

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

22an:

– Lehendakariordea eta Idazkaria hautatzea.

– Hezkuntza eta Kultura Batzordearen ordezkari baten hautaketa Hezkuntzako Batzorde Nagusirako.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

23an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

25ean:

– Idazkariaren hautaketa.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

25ean:

– Lan-bilera. Jamont Tisú, S.A. ko enpresa batzordearen ordezkari azalduko da bertara, bere egoeraren berri emateko.

29an:

– Lan bilera. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia hurrengo gaiei buruzko azalpenak emateko:

1. Jamont Tisú, S.A. enpresaren egoera.

2. Bere Departamentuaren zenbait gai interesgarri.

30ean;

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, bere Departamentuaren jarduketaldien berri eman dezan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

29an:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

31n:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren agerraldia, bere Departamentuaren jarduketa-ildoen berri eman dezan.

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

30ean:

– Lan-bilera. Bertan Senideak Elkartearen ordezkariak batek euskal presoaren egoeraren berri emateko.

Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko urrian sartu diren agirien zerrenda

1a:

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Bardeetako tiro barrutiaren iraupenari buruz eginiko galdera.

– Sartagudako Udalaren izkribua eta, harekin batean, Udalbatza horren Osoko Bilkuraren Erabakia, Ameskoako Limitaciones Mendiko Batzarraren izkribua onesten duena.

– Pilar Abadía Gauna Foru Parlamentari andrearen izkribua, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu dela jakinarazten duena.

– Pedro Eza Goyeneche Foru Parlamentari jaunaren izkribua, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu dela jakinarazten duena.

– Carlos Fernando García Adanero Foru Parlamentari jaunaren izkribua, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu dela jakinarazten duena.

– Félix Armañanzas Echarri Foru Parlamentari jaunaren izkribua, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu dela jakinarazten duena.

– Juan González Mateos Foru Parlamentari jaunaren izkribua, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu dela jakinarazten duena.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen izkribua, Parlamentuko Batzordeetan izanen dituen ordezkariak izendatzen dituena.

2a:

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunaren izkribua, NUPeko Gizarte Kontseiluaren eta Gobernu Batzarraren bilkuretako aktei buruz argibideak eskatzen dituena.

– Foru Lege Proposamena, «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldeak aurkeztua, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena.

– Senideak elkartearen izkribua, Espainiako eta Frantziako gartzeletako zenbait presoren egoera salatzen duena.

4a:

– Nafarroako Gobernuaren izkribua eta, harekin batean, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» eta «Eusko Alkartasuna-Askotarik» Parlamentari Taldeek aurkeztua.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren izkribua, Marcotegui jaunak dauzkan karguei buruz.

– Etxarri Aranazko Udalaren izkribua, Udalbatza horren Osoko Bilkurak euskal presoei buruz harturiko Erabakia igortzen duena.

– Olaztiko Udalaren izkribua eta, harekin batean, Udalbatza horren Osoko Bilkuraren Erabakia, Ameskoako Limitaciones Mendiko Batzarraren izkribua onesten duena.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeen izkribua, Gizarte Gaietako Batzordeari Iruñeko gartzelara joan dadin eskatzen diona, intsumisioekiko kezka adierazteko asmoz.

– Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunaren izkribua, Nafarroako Gobernuak eta Noain-Elortzibarko Udalak Elortzibarko industrialdeari buruz izenpeturiko Hitzarmenari buruz argibideak eskatzen dituena.

7a:

– Nafarroako Gobernuaren izkribua, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren eta Osasun Kontseilariaren agerraldien egunak elkarrekin truka daitezela eskatzen duena.

– Vianako Udalaren izkribua, Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunak udal igerilekuan sei lanpostu kontratatzeke espedienteari buruz eskaturiko argibideak igortzen dituena.

8a:

– Deikazteluko Udalaren izkribua eta, harekin batean, Udalbatza horren Osoko Bilkuraren Erabakia, Ameskoako Limitaciones Mendiko Batzarraren izkribua onesten duena.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen izkribua, Pedro Eza Goyeneche jauna Hezkuntza Batzorde Nagusirako hautagai izendatzen duela jakinarazten duena.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearen izkribua, Pablo Lorente Zapateria jauna Hezkuntza Batzorde Nagusirako hautagai izendatzen duela jakinarazten duena.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunaren izkribua hurrengoari buruzko argibideak eskatzen dituena: Gobernu Zentraleko Defentsa Ministerioak eta Bardeetako Komunitateak tiro poligonoa erabiltzeari buruz izenpetu duten Hitzarmenaz.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen izkribua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari karguen bateraezintasunei buruzko Foru

Lege proiektuari aurkezturiko zenbait emendakin atzera bidali dituela jakinarazten duena.

– Kontuen Ganbararen izkribua, Nafarroako Gobernuak ekainean, uztailean eta abuztuan Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Aginduen eta Ebazpenen bidez gauzatutako aurrekontu aldaketen legezkotasunari buruz txostena igortzen duena.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearen izkribua, "Prozesu informatikoko ekipoak" Parlamentuko aurrekontuko kontusaila betearaz dadila eskatzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, N-232 Tuteratik pasatzen den unean errepidea destolesteari buruzkoa.

9a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Pablo Lorente Zapateria Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Itoitzeko urtegiaren obretara bidali den Guardia Zibilaren destakamenduari buruz zer informazio duen jakiteko eginiko galderaren erantzuna.

– Informazio Enpresariari buruzko Europako Zentroaren idazkia, Genovan Europarnerari Italia 1996 izeneko enpresarien arteko lankidetzeta programa egingo dela iragartzen duena.

– Alemaniako Kotsulatu Nagusiaren idazkia, kotsulatu horren lanak Madrilgo Alemaniako Enbaxadara pasatzen direla jakinarazten duena.

– Josep M^a Martínez i Balart jaunaren idazkia, sexua dela eta bazterkeriak gertatzen direla salatzen duena.

– Jaime Iribarren Foru Parlamentari jaunaren idazkia, argibideak eskatzeko Manufacturas Navarra, S.A. enpresaren ordainketa-etendurari buruzko txostenaz, baita Comepor enpresa ordezkatu duen enpresaren arantzelei buruzko txostenaz ere.

– Fco. J. del Cerro Paúl Zerbitzu Orokorretako Buru jaunaren idazkia, joan den iraileko 19an Legelari Nagusiari aurkeztu zion txostena Parlamentuko Mahaiaren aurrean izapida dadila eskatzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Iparreko Autobian atzeman diren arazoei buruzkoa.

10a:

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroan dauden kontrolik gabeko zabortegei eta hondakindegiei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuakideen opor sariei buruzkoa.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Nafarroako Gobernuak eta Francisco de Jaso ikastolak izenpeturiko eskola itunari buruzko argibideak eskatzeko.

– «Nafarroako Demokratien Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia, Inmaculada Matías Angulo andrea Hezkuntza Batzorde Nagusirako kide izateko hautagaia izateko izendatu dutela jakinarazteko.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia, Nafarroako Gobernuakideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeari eginiko emendakin bat mantendu duela jakinarazteko.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearen idazkia, Nafarroako Gobernuakideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeari eginiko emendakinetatik zeintzuk mantendu dituen jakinarazteko.

11a:

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta berarekin batera Lesaka eta Berako udaletako fiskalizazio txostenak.

– Senideak elkartean idazkia, euskal presoei eta kartzeletako egoerari buruzkoa.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia, eta berarekin batera jar-duera ekonomikoetako indusialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzko Foru Lege proposamena.

– Noingo Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatza horren Osoko Bilkurak Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarrak bidali duen idazkiari buruz hartu duen erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren zenbait Foru Agindu eta Ekonomi Zuzendari Nagusiaren zenbait ebazpen, hainbat aurrekontualdaketa baimentzen dituztenak.

– Adin gutxikoen Epaille-Magistruaren idazkia, epaitegiko geletarako hiru ordenadore eskatzen dituenak.

– «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeen idazkia, Giza Eskubide Batzordearen bilkurarako deia eskatzen

duena, Senideak elkarteko kideek euskal presoen egoerari buruzko argibideak eman ditzaten.

14a:

– Ferrán Tamarit Darrés jaunaren idazkia, Hezkuntza eta Kultura Batzordearen bilera eskatzen duena, Pablo Sarasate orkestra bizitzen ari den egoera larriaren berri eman ahal izateko.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia, Javier Velez Medrano 4. solairuko bulegora joango dela jakinarazten duena.

16a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako Katedraleko kanpoko argiteriari buruz egin duen galderaren erantzuna.

– Etxarriko Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak Urbasa eta Andiako Parke Naturala aldarrikatzeari buruz hartu duen erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren Foru Agindua, kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentariak eginiko galdera, farmazi produktuen salneurria merketzen duen Dekretuak Nafarroan izan dezakeen eraginari buruzkoa.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeen idazkia, Jamont Tisú S.A. enpresako Enpresa Batzordearen agerraldia eskatzen duena, enpresako egoeraren berri eman dezan.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeen idazkia, Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilariarekin lan-bilera eskatzeko, Jamont Tisú, S.A. enpresako egoeraren berri eman dezan.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia, Foru Diputazioko Lehendakariaren agerraldia eskatzen duena, Nafarroan EITB hartzeko negoziazioak edo izapideak zein egoeratan dauden azal dezan.

17a:

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, 1996-1997 ikasturterako Gizarte Bermeko Egitarauaren zenbait gorabeherari buruzkoa.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunaren idazkia, hurrengoari buruzko argibideak eskatzeko: Nafarroako Aurrekontu Orokorretako

dirusarrera aurrekontuaren betetzea egoeraz 1996ko 3. hiruilekoan.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia, eta berarekin batera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege Proposamena.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearen idazkia, Gobernuoko Lehendakariaren agerraldia eskatzen duena, "Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena"ri buruz egin dituen deklarazioen berri eman dezan.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentariak egindako galdera izendapen askeko karguei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentariak egindako galdera Tuterako zaharretxeari buruzkoa.

– Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarren idazkia, D mailako langileen artean transkriptore-lanpostuak betetzeko azterketak egin daitezzen eskatzen duena.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia, Gobernuoko Lehendakariaren agerraldia eskatzen duena Senatutik "Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena" erretiratze-ko erabakiari buruzko azalpenak eman ditzan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak eskatu dituen argibideak, Nafarroako Gobernuak 1991 eta 1995a bitartean eraikitzaile batzuekin izandako harremanei buruzkoak.

18a:

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak egindako galdera, NA-3010 errepidean, Tuteratik Ablitasa bitartean, dauden obrei buruzkoa.

– Ollolibarreko Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak Urbasa eta Andiako Parke Naturala aldarrikatzeari buruz hartu duen erabakia.

– Barañaingo Udalaren idazkia, eta berarekin batera Giza Eskubide Batzordeari igortzen zaion euskal presoak elkartzeari buruzko erabakia, Udal hartako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartua.

– Barañaingo Udalaren idazkia, eta berarekin batera Lehendakari andreaki igortzen zaion euskal

presoak elkartzeari buruzko erabakia, Udal hartako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartua.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen mozioa, Diputatuen Kongresua eta Gobernuaren armen esportazioari buruzko funtsezko datuak argitaratzera premiatzen dituen.

– Alberto Catalán Higuera Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Biltzarreko Mahaiko Bigarren Idazkari kargua uzten duela jakinarazteko.

21a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, 1996ko hirugarren hiruilekoan Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-egoera zein den jakinarazten duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilariak lan-bilera bat eskatzen duela Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeko kideekin jakinarazten duena.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Aresoko lehen mailako eskolari buruzkoa.

– Orkoiengo Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak euskal presoei buruz hartu duen erabakia.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Hizkuntza Politika Zuzendaritza Nagusiari buruzkoa.

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta berarekin batera haren zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Itoizko urtegiari buruzkoa.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Aralarko Mikel Deunaren santutegiaren egungo egoerari buruzkoa.

22a:

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentariaren idazkia, idazkari postua aldi baterako kontratuekin betetzen dituzten udalen zerren da eskatzen duena.

– Lesakako Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak euskal presoiei buruz hartu duen erabakia.

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta berarekin batera Nafarroako Gobernuak 1996ko irailean Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindu

eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta horri buruz Ganbarak emandako legezketasun txostena.

23a:

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Donejakue bideak Nafarroan zeharkatzen dituen herrietarako aurrekusi diren inbertsioei buruzkoa.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Iruñeko Hizkuntz Eskolako ikasle kopurua eta ikasleen bizilekuari buruzkoa.

– Peace Brigadas International erakundearen idazkia, Metako (Kolonbia) Giza Eskubide Batzarrereko Lehendakariaren hilketari salatzen duena, eta Bozeramaleen Batzarrari gertaera horiei buruzko aldarrikapen bat eskatzen diona.

24a:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilariaren Foru Agindua, 1996ko Aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren Foru Agindua, 1996ko Aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentariaren idazkia, Osasun Batzordeak hainbat erakunderekin lan-bilera egin dezan eskatzen duena.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentariak egindako galdera, "La vida moral y la reflexión ética" tituluko D.B.H.ko 4. ikasturteko testu liburuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak lan-bilerarako deia egin dadila eskatzen duela jakinarazten duena, Nafarroako Artxibategi Nagusia Kapitaniako Jauregian paratzeko proiektuaren berri emateko.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia, NUPeko Errektorearen agerraldia eskatzen duena selektibitatea gainditu eta gero bertan matrikulatzerik izan ez duten nafarrei buruzko argibideak eman ditzan.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuaren gaineko zenbait gairi buruzkoa.

– Osasun Batzordeko Lehendakaria den Fermín Ciáurritz Gómez jaunaren idazkia, CINFA,

S.A. enpresa bisitatzea eskatzen duena, enpresak berak gonbidatuta.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeen idazkia, Kolonbian giza eskubide eta osotasun fisikoari buruzko aldarrikapen politikoa aurkezten duena.

25a:

– Kontuen Ganbararen idazkia, eta berarekin batera "enpleguaren sustapena 1994-1995" programaren gainean egindako fiskalizazio txostena.

– Ziritzako Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak Urbasa eta Andiako Parke Naturala aldarrikatzeari buruz hartu duen erabakia.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia, eta berarekin batera Ortega Lara jaunaren bahiketari buruzko erabaki-proposamena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Katedrala konpontzeko aurrekusi dituen obrei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak eskatu zuen Manufacturas Navarra, S.A. enpresaren ordainketa-etendurari buruzko txostena, baita eskatutako Comepor enpresa ordezkatu duen enpresaren arantzelei buruzko txostena ere.

26a:

– M^a Angeles Arizcuren Rey andrearen idazkia, honako deialdi honetan parte hartzea eskatzen duena: deialdia, D mailako funtzionarien izangaien zerrenda osatzeko proba murriztuetarako, haien aldi baterako prestakuntza errazteko, Transkriptore gisa garatzearen, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera.

– Miguel Carlos Ramírez jaunaren idazkia, honako deialdi honetan parte hartzea eskatzen duena: deialdia, D mailako funtzionarien izangaien zerrenda osatzeko proba murriztuetarako, haien aldi baterako prestakuntza errazteko, Transkriptore gisa garatzearen, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera.

28a:

– Bertizaraneko Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udalbatzaren Osoko Bilkurak Urbasa eta Andiako Parke Naturala aldarrikatzeari buruz hartu duen erabakia.

– Iruñeko Udaleko alkatearen idazkia, adinez txiki direnen arazoei buruzko jardunaldi teknikoak egingo direla jakinarazten duena.

29a:

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernuak beste Lankidetzaz Hitzarmen bat izenpetu dezan Euskal Autonomia Erkidegoarekin.

– Carlos Cristóbal García Foru Parlamentariaren idazkia, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia eskatzen duena, "Haur Hezkuntza, Lehen mailako Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskolatzeko-beharrak eta egoerari buruz" izeneko txostenaren gaineko argibideak eman ditzan.

– Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak "Cárnicas del Sadar, S.A.L."i eman dizkion laguntza eta maileguei buruzkoa.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Zerga-arauen gaineko hiru Foru Lege aurreproiektuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkien Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruzko Erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruzko Erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-osagarria emateko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren opor sariei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmena, oliba olioaren ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko kontrol sistemei buruzkoa.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, ondorengoari buruzkoa; Nafarroako Gobernuak aurreikusitako Osaunbidean hurrengo ezartzea: HIESaren pronostikoa neurtzeko prozedura, birus zamaren bidezkoa.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egindako galdera, Gizarte Ongizate Departamentuak AGEDNA dela eta hartuko dituen neurriei buruzkoa.

30a:

– Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Abilitasko liburutegiko zerbitzua berriz emateko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

– Aibarreko Udalaren idazkia, eta berarekin batera Udaltzaren Osoko Bilkurak Saharako herriari buruz hartutako Erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Nafarroako Gobernuak hartu duen Erabakia "Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena" Gorte Orokorretatik erretiratzeko.

31:

– Nafarroako Medikuen Elkargo Ofizialaren idazkia, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkien Foru Lege proposameneri buruzko argibideak eskatzen dituen.

– Nafarroako Gobernuaren Lehendakariaren idazkia, Lehendakari eta Barne Kontseilari edo/eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren izendatzen dituen Nafarroan EITB hartzeko gorabeherari buruzko informazioa eman dezaten.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia, ondoko hau eskatzen duena: Bozeramaleen Batzarrak Kontuen Ganbara premia dezala azken honek Comepor eta Ponsal enpresei eman zaizkien laguntza publiko guztien gaineko fiskalizazio txostena egiteko.

– «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldearen idazkia, Pablo Sarasate orkestrako ordezkari batekin lan-bilera egin dadin eskatzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, eta berarekin batera Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak emandako Foru Agindua, aurreko beste bat baliogabetzen duena, eta kreditu-transferentzia baimentzen duen beste Foru Agindu bat.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Tafallatik igarotzen den Nafarroako autobideari buruzkoa.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--